

Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 2019ko azaroaren 10eko hauteskundeetako parte-hartzearen gaineko Agindu Proiektuari buruz



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUAREN AGINDU PROIEKTUARI BURUZKOA; AGINDU PROIEKTUAK ARAUAK EMATEN DITU LANGILEEK, DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASOTA, 2019KO AZAROAREN 10EKO GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HAR DEZATEN

Aurrekariak

2019ko irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren baitako Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak idazki bat helarazi du Lan Harremanen Kontseilu honetara; idazkian jasota dator Lan eta Justizia Sailburuaren Agindu Proiektua, zeinak arauak ematen dituen langileek 2019ko azaroaren 10eko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

Agindu Proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txosten Batzordeko kideei helarazi zitzairen eta 2019ko urriaren 7ko bileran jorratu zen.

Agindu Proiektuaren testuari buruzko iritziak

Txostenean jorratzen den Agindu Proiektuaren testuak errepikatu egiten du, besterik gabe, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia. Berberak dira, hain zuzen ere, eduki hori eta urte honetan bertan eta azken urteotan izan diren hauteskundeak zirela-eta Lan Harremanen Kontseilu honetan sartu izan diren Agindu Proiektuen testuena.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txosten Batzordeko kideen iritziak jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHK-ko Txosten Batzordeak gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.

Horrenbestez, 2019ko urriaren 7an egindako bileran jarraian ematen dugun txostena onartu da:

Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 2019ko azaroaren 10eko hauteskundeetako parte-hartzearen gaineko Agindu Proiektuari buruz



Txostena

Kontseiluko kideek beren adostasuna adierazten dute Agindu proiektuaren testuarekin, alegia, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2019ko azaroaren 10eko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte har dezaten arauak ematen dituenarekin, honako puntu honetan izan ezik: Enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian, ordaindutako baimena bakarrik aitortu behar litzaieke langileei beren lan-jarduna eta hauteskunde-kolegioen irekitze-ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbon, bi mila eta hemeretzi urriaren 7an.